Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

170 zenbakia
2016 **ekaina**

Prest!

BERBETAN: **IRATI PEREZ DE NANCLARES** DEUSTU ARRAUN TALDEKO KIDEA

ERREPORTAJEA: **ONDALAN 20 URTE ERRALDOI** **BARKUA:** **LOITZ ZERAMIKA**

TOKIKOM

164-165-166-167-168-169-

Prest! izan

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

Harpidetu urtean 25€

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal, 42
Deustua 48014

EDO HONA
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

GOIKO ALDE Kultur Elkartea
BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA
bekoerri kultur elkartea
DEVSTVKO IKASTOLA GVRASOAK
berbaizu euskaraelkartea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
MIKELDI DANTZA TALDEA
DEUSTUKO JAI BATZORDEA
PARE HAUTSI DIFUSIÓN KATEAK
deustuko gazte asanblada 1981 2010
ernai Deustua
erraldoien ondalan konpartsa
xut Kultur ekintzak Propuestas culturales
intxixu ikastola
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Doneperiaga Auzo Elkartea
GILKITXARO
Bilbao

170 zenbakia
2016ko ekaina

aurkibidea

Begoña Altuna eta Joserra Bilbao — **Iritzia** 4
Myrian Agüero — **Gurera etorria** 5

e erreportajea 6
Ondalan, 20 urte erraldoi

Deustuko lagun talde batek erraldoien bitartez euskal folklorea berpizteari ekin zion. 20 urtetan Bizkaiko erraldoien panorama guztiz iraultzeraino.

San Ignacio LHI — **Eskolak** 10
Lehenengo sozialistak (1897) — **Behin batean** 12
Deustuko Gazte Egun ezin hobea — **Artikulua** 14

b berbetan 16
IRATI PEREZ DE NANCLARESekin

Irati Perez de Nanclares Deustuko nesken traineruaren arraunlaria da. Gurea da Bizkaiak duen nesken ontzi bakarra eta Irati harro dago bere taldeak eta klubak egindako lanarekin.

Deustuko Emakumeak eta inauteriak, 2005 — **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

KULTURA Komikia zein thriller psikologikoa
SAREKADA Klik eta klik
PINTXODROMOA El Rincón taberna
KULTUR TXOTX Berta Alcalde Arrizabalaga eta Asier Meabe Asporosa

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
www.facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Begoña Altuna, Joserra Bilbao, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.850
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Joserra Bilbao
Erretiratua

Athletic: oso zaharkituta zaude

Zenbat izerdi, zenbat lan-ordu, zenbat momentu krikito
baina aspaldi esan genuen ez genuela etsiko.
Orain gabarra eske gatoz gu Bizkaian horren mitiko
Bilbo aldeko uretan barna ederki da ibiliko
hautsa kentzeko ere ez zaio horren gaizki etorriko.

Gabarra dugu sinbolikoa ederra bezain berezi
Urrutiari zuzentzen gara gainditzeko mila hesi
baloiarekin badaukagunez horrenbeste abilezi
Liga-txapeldun izan ostean ez zaitez joan ihesi…
gizonezkoen tratu berdina ez ote dugu merezi?

Bertso hauek zabaldu zituzten Athleticeko neskek hilabete honen hasieran, Urrutiari gabarra eskatuz eta Euskal Herriari buelta eman zioten mugikorretik mugikorrera eta sare sozialetan. Bertsoen egilea, taldekoen lagun bat zen, Aitor Irastorza.

Gauza da Athleticek entzungor egin duela berriz ere. Bosgarrenez. Hori bai, taldeko neskak Begoñako Amatxurengana eroan zituzten omenaldiaren egunean. Neska hauei galdetu zieten ea hori egin nahi zuten? Euretariko zenbat izango ote dira fededunak eta elizazaleak? Estatistiketara begiratzen badugu, oso gutxi. Non da erlijio-askatasuna eta erakundeen akofensionaltasuna?

Askok pentsatu izan genuen talde hau sortu zutenean, Athleticen marketin kanpaina bat baino ez zela, euren burua moderno agertzeko baina ez zutela benetan sinisten sexuen arteko berdintasunean. Orain argi ikusi dugu arrazoia genuena.

Zer kostatzen zitzaien gabarra ateratzea, ondo geratzeko baino ez bazen ere?

Athletic: oso zaharkituta zaude, karka hutsa zara.

Begoña Altuna
Ordenagailuen euskara irakaslea

Ozen

Tik-tak, tik-tak, tik-tak, denbora aurrera doa eta unea hurbiltzen ari da. Batzuk sumatuko zenuten aldaketaren bat inguruan, baina ez dakizue nondik datorren erauntsia. Burrunba gero eta ozenago entzuten duzue, ziur.

Gazte talde baten eskutik dator harrabotsa. Izan ere, bazen garaia berriro gazteok indarrak hartu eta Deustuk euskaraz berriro gainezka egiteko. Eta zertarako? Ahalik eta jende gehien euskaraz ozen hitz egiten entzuteko.

Ekain honetan aurkeztu da Ozen gazte euskara taldea, Deustualdeko gazte euskaldunentzat euskarazko topaguneak eta aisialdi ekintzak eskaintzeko. Agian enbataren asuntuarekin esajeratu dut, agian borondatea baino ez dugu promes egindako tsunamia bezain handia.

Horregatik indarrak batzera gonbidatu nahi zaituztegu zuen ahots gazte eta gozoak euskaraz eta ozen erabiltzera. Denon artean Deustu euskararen oasi bihurtuko dugu, euskara dakien orok nahibeste edan dezan. Edozer izan daiteke oasiko tanta: hitzaldi bat, txango bat, museoari bisita bat, pajaritadun afari bat.

Zuen ahotsen eta ideien egarri gara, gazteak! Hurbildu beldurrik gabe gugana, Deustualdean euskaraz ozen hitz egiten dugun horiek gara. Agian pajarita jantzita, pajaritadun afarirako. Egingo dizuegu tokia mahaian.

Myrian Agüero

Jatorria: Concepcion, Paraguai
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: etxeko langilea

"Etorkina izateko ausarta izan behar duzu, ez du edonork balio horretarako"

Testua:
Lur Mallea

Zelakoa da zure herria?
Paraguai iparraldean dagoen Concepcion hirikoa naiz. Landa gunean kokatuta dagoen hiri nahiko handia da. Paraguaitarrak guarani etniakoak gara. Hizkuntza guarania espainolarekin batera hizkuntza ofiziala da, eta batik bat landa guneetan erabiltzen dugu, ez hainbeste hirietan.

Zergatik erabaki zenuen zure herrialdea uztea?
Pobreziagatik. Hemen etorkizun gehiago izango genuela esaten ziguten, eta nire familiari zerbait hobea eskaini nahi nion. Orduan seme bat nuen; nirekin ekarri nuen. Zortzi neba-arrebako familia da nirea. Ni bosgarrena naiz. Denak bizi dira Paraguain.

Zer dela eta erabaki zenuen Deustun bizitzea?
Areetan bizi izan nintzen aurretik eta Deustun lana aurkitu nuenean etorri nintzen bertara bizitzera duela bost urte.

Ondo hartu zaitugu deustuarrok?
Deustun oso gutxi gizarteratu naiz. Aurten apur bat gehiago euskara ikasten hasi naizelako. Nire semeek eskola publikoan ikasten dute euskaraz, eta nik ere euskara ikastea nahi izan dut eurei laguntzeko. Egia esan, aurten arte inoiz ez dut elkarrizketarik izan bertako inorekin, ez bada lan kontuetarako. Ecuador Etxean euskara ikasten hasi nintzenetik hainbat aldiz elkartu gara lagun taldetxo bat Berbaizu elkarteko kideekin. Oso esperientzia polita izan da. Pertsona jatorrak ezagutu ditut; ez nuen horrelakorik espero.

Hiru seme dauzkazu. Zelan egokitu dira Deustun?
Seme nagusiena sei urterekin iritsi zen hona. Ez du Paraguaira itzuli nahi. Batzutan haserretu egiten gara uneren baten itzuli behar dugula esaten diodanean. Tristetu egiten da. Beste bi semeak hemen jaiotakoak dira.

Kanpotarrak ondo hartzen badakigu?
Denetarik dago. Badaude goitik behera begiratu eta zakar tratatzen nautenak, pertsona arrazistak. Baina gehiengoa ez da horrelakoa. Pertsona onak dira.

'Etorkin' hitzarekin identifikatzen zara? Gustuko duzu?
Etorkina izateko ausarta izan behar duzu, ez du edonork balio horretarako. Ez du edonork bere erosotasun gunea uzten beste herrialde batera joateko eta hutsetik hasteko. Ausarta izan behar duzu atzean uzten duzun horretan ez pentsatzeko. Ez da herri batetik bestera joatea; ozeanoa zeharkatzen dugu. Ez zait mespretxuzko hitza iruditzen.

Lan kontuekin zelan moldatu zara?
Zorionekoa izan naiz. Etxeko lanak egiten ditut. Ez nuen unibertsitatean ikasteko aukerarik izan. Batxilerra ozta-ozta amaitu nuen. Aukera faltagatik irten nuen nire herririk hain justu.

Zer duzu faltan?
Familia, batik bat. Klima ere bai. Oso beroa da Paraguai. Udaberrian udako tenperatura izaten da eta udan oso, oso beroa. Gainera, euri gutxi egiten du. Bilbo, berriz, oso euritsua da.

Zein amets duzu?
Zortzi urtetan ez naiz behin ere itzuli Paraguaira bisitan. Horregatik oporretan joan nahi nuke urte amaieran.

Bisitan zoazenean zer ekarriko duzu Deustura itzultzen zarenean?
Nire amaren oroigarriren bat eta Paraguaiko gauza tipikoren bat. Aurreko batean, adibidez, eskolan nazioarteko eguna ospatu zuten nire semeek. Hurrengo baten Paraguaiko jantzi tradizionala erakus dezaten osagarriren bat ekarriko dut.

ONDALAN 20 URTE ERRALDOI

Deustuko lagun talde batek erraldoien bitartez euskal folklorea berpizteari ekin zion. 20 urtetan Bizkaiko erraldoien panorama guztiz iraultzeraino. Joan den ekainaren 4an urteurrena ospatu zuen konpartsak inoiz Bizkaian izan den erraldoien topaketa handienarekin.

Testua: Lur Mallea **Argazkiak:** Ondalan

Elorrietako Sanpedro familiak lotura handia du Ondalan Erraldoien Konpartsarekin. Asier da kide gazteena; 19 urte ditu. Bere arreba sartu zen lehenengoz taldean eta bere atzetik Asier. Ondoren, bien aita. “Ama falta da”, dio Asierrek, baina ez dabil konpartsatik oso urruti.

Buruhandi bezala hasi zen Asier taldean, bederatzi urterekin. Orduan ez zegoelako erraldoi txikirik, ikasteko. Hasi eta berehala gustatu zitzaion konpartsa. “Polita da jaietako euskal giroa”, Asierren aburuz. Bizpahiru urte ikasten eman ostean estreinatu zen erraldoi handiekin hamasei urte zituela, eta erraldoien benetako pisuaz jabetu zen. 42 kiloko zama: “Kanpotik begira egoten direnek erraldoiek ez dutela pisurik diote; erraz eramaten direla, baina berak eramaten zaitu zu”. Horregatik funtsezkoa da ondo trebatuta egotea.

Ez du erorketarik izan inoiz. Asierrek ez, baina bai bere lagun batek. “Ume batek zangotraba eginda” jausi zen erraldoi eta guzti. Min larririk ez, baina kolpe handia hartu zuen. “Ez gara jausten inoiz, jendea tartean sartzen ez bada”, azaltzen du Asierrek. “Horregatik hasten gara erraldoi gabe dantzan ikasten eta gero pixkanaka erraldoia altxatuz”.

Erraldoiaren gonapean, egiturari eutsi bitartean, eman beharreko dantza-pausoak ikastea “erraza” da. Gainerakoa “praktika kontua”. Asierren esanetan “koordinazio handia behar duzu” erraldoiak dantzatzeko. Berak lortu du, eta gainera ikasitakoa bestelako

"edozein" jarduera egiterakoan baliatzen du. "Ez da indar kontua", argitu du Ondalan konpartsako sortzaileetako batek. Nuriaren hitzetan, "orekari eusten eta pisua ondo bideratzen" ikasi behar da. "Hankekin indarra eginez altxatu behar dira erraldoiak". Hor dago koska. "Indarra hanketara bideratu behar da".

Egun ederra

Ez zaio erraz ahaztuko Asierri joan den ekainaren 4an bizitakoa. "Egun ederra" izan zen. Konpartsak Euskal Herri osoko erraldoien konpainian ospatu zuen 20. urteurrena. Hunkitu egin zen Elorrietan, bere auzoan, 69 erraldoi ikustean, eta batik bat, Levante plazan 69ek elkarrekin balsa eta *Polonesa* dantzatu zutenean. Bilboko jaietan 50 batu ohi dira, baina ekaineko lehen larunbatean Deustualdean "horrenbeste" elkartzea "gutxitan" gertatzen den zerbait da. Izan ere, Bizkaian inoiz egin den erraldoien topaketa handiena izan zen Ondalanek antolatutakoa. Arruntagoak dira Nafarroan eta Gipuzkoan horrelako topaketak. Esaterako, Tuteran, Santa Ana egunean, 100 bat erraldoi biltzen dira edota iaz, Donostian, 100 erraldoitik gora batu ziren.

Eguna "ez zen ondo hasi", euritsu hasi baitzen, eta zorionez aurrera egin ahala atertu zuen. Euripean eta urduri hasi ziren Ondalaneko kideak. Urduri batez ere prestaketan "denbora asko" eman dutelako Igor konpartsako sortzaile eta egungo diruzainaren esanetan. "Gauzak martxan hasi zirenean eta dena ondo zihola ziurtatzean lasaitu ginen".

Koordinaketa lanak burutzen eman dute denbora gehien. "Baimenak eskatzen", besteak beste, Patri konpartsako sortzaile eta egungo lehendakariaren arabera. Euskal Herri osoko hamaika erraldoi talde Deustura gonbidatzea "gusturago" egin duten zeregina izan da. "Beti da polita ospakizuna konpartitzea, ez baita urteurrena bakarrik, 20 urtetan egindako prozesu osoa nahi genuen irudikatu gure lagunekin batera. Batzuk hasieran izan genituen alboan, beste batzurekin bidean elkartu gara. Euskal Herri osoko lagunak dira. Harreman horiek berreskuratzea nahi izan dugu, eurekin ospatzeko". Horrela bada, Arrasate, Txantrea, Donostia, Kanbo, Sanduzelai, Santurtzi, Areatza, Basurtu, Bermeo eta Getxoko taldeek ez zuten hutsik egin Ondalanen ospakizunean. Guztira, 550 lagunetik gora batu ziren Deustutik eta Ibarrekolandatik abiatu ziren kalejiran, dantzan, Elorrietan bazkaltzen eta, erraldoiei atseden eman ostean, berriro ere dantzan Levante plazan Aiko

"20 urtetan egindako prozesu osoa nahi genuen irudikatu gure lagunekin batera"

taldeak eskaini zuen erromerian. “Egun oso berezia” izan zen Igorrek laburbildu duenez.

Erraldoien eskola Bizkaian

Oroitzapenetan atzera eginda, duela 20 urte Bizkaia aldean “ia ez zegoela” erraldoirik gogoan du Igorrek. “Ez zegoen errotuta” erraldoiak dantzatzeko kultura. Talde gutxi batzuk baino ez zeuden folklorearen esparru hori lantzen. Bilbon, erraldoiak Udalaren ondarea ziren eta “jai egunetan baino ez ziren irteten; urtean behin”. Folklorearen esparrutik zetozen kide batzuk Deustun elkartu ziren arte Ondalan Erraldoien Konpartsa sortzeko. Tartean, zeuden Patri, Igor eta Nuria. “Hasi ginenean beharrezkoa zen folkloreari bultzakada ematea beherantz zihoalako. Gure proiektua hasieratik izan zen beste konpartsa batzuk animatzea eta bultzatzea”. Hori egin du Ondalanek 20 urtetan Barakaldon, Santurtzin, Bermeon, Basurtun… betiere “elkarlanean”.

Ondalaneko kideentzat, “nahita edo halabeharrez” lehentasuna izan da erraldoien tradizioari zabalpena ematea. “Lan hori egokitu zaigu”, azpimarratzen du Patrik. Denborarekin, ereindako hazietatik fruituak jaso dituzte. Zorionez, erraldoien panomara berpiztu eta irauli egin baitute Bizkaian. “Herri batean konpartsaren bat sortzean konpartsakideak eurak izan dira tokian bertan eta inguruan lan hori bere gain hartu dutenak eta zabalpenari jarraipena eman diotenak”. Esaldi batean borobilduz, “gu gara erraldoien eskola Bizkaian” dio harro Igorrek.

Izan ere, harrobia sortu dute. Esaterako, belaunaldi berrien parte-hartzea sustatzeko 1998an erraldoi txikien konpartsa sortu zuen Ondalanek eta 2005ean are txikiagoena (bost-sei urteko umeentzat). Erraldoi askoz arinagoak eta eramangarriagoak egin zituzten Kukubiltxo antzerki taldeko kideek beren-beregi Deustuko ume eta gazteek erraldoiak dantzatzen ikas zezaten. Horretan ere aintzindariak izan dira.

Atzera zein aurrera begiratu pozik dago Patri lehendakaria. “Pentsa zenbat pertsona pasa diren konpartsatik eta Ondalanen hamabi erraldoietatik. 20 urte luze eta gogor izan dira, baina gustura egindako lana izan da, bestela ez genukeen egingo. Bi hamarkada hauetan jendea konpartsara etorri da eta konpartsatik joan da. Umeak taldean edukitzea oso gauza polita da, etorkizuna eurei esker izango dugu. Eurek jarraituko dute gure lanarekin. Ea azkar hazten diren taldean 20 urte daramagunok etxera joan gaitezen. Orduan erraldoiak beste leku batetik ikusten gozatuko dugu”.

“Lehentasuna izan da erraldoien tradizioari zabalpena ematea”

Epe laburrean, eskola lana egiten jarraituko du Ondalanek. Azken hiru urteetan egin bezala, erraldoiak dantzatzen irakasteko tailerra eskainiko du uztaileko ostegunetan Euskal Museoan. Gaztetxoei zuzendutako ikastaroan “urtez urte gero eta jende gehiagok parte hartzen du museoko klaustroa betetzeraino”.

Ondalan Erraldoien Konpartsa
Blas de Otero 42 atzealdea
www.ondalan.eus

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE
RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

GURE ESKOLA-ORTUA

Aurtengo ikasturtean, guraso elkartearen eta irakasle talde baten kemenari esker, eskola-ortua jarri dugu martxan.

Testua eta argazkiak:
San Ignacio LHI

Gure ortua gimnasioaren alboan dagoen espazioan, txirristaren atzeko aldean, hain zuzen, jarri dugu. Han, hesi batez mugatutako txoko bat sortu eta lorontzi batzuk jarri ditugu. Proiektua abian jartzeko orduan, gure eskolarentzat ingurumenarekiko garrantzitsuak diren balore eta helburuak izan ditugu kontuan:

- Ikasleek egunero ikusi eta jaten dituzten elikagai askoren jatorria eta beraien hazkuntza-prozesua ezagutu eta bizitzea.

- Natura zaindu behar dugun kontzientzia jorratzea.

- Elikagai osasuntsuak kontsumitzearen garrantzia azpimarratzea.

- Ardura eta ondo egindako lanaren poza izatea.

Proiektuari hasiera emateko, uhazak eta usain-belarrak landatu ditugu eta ikasleriaren zereginak, ortua bera zaintzeaz gain, erein, ureztatu eta uztaren kargu hartzea izan dira. Nahiz eta aurten LH4tik gorako ikasleriaren ardurapean egon den, gure asmoa, etorkizunean, ortuaren ardura eskola osoko ikasleriari zabaltzea da. Baina horrek ez du esan nahi ez dugula bisitarik izan. Ikasle gaztetxoagoak ortua ezagutzera etorri dira eta ortuko zereginetan aritzeko aukera izan dute: landareak ureztatu, belar txarrak kendu… eta abar. Datozen ikasturteetako ereinaldietarako harrobia eraikitzen hasi gara!

ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA

MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

LEHENENGO SOZIALISTAK (1897)

Sozialismoaren aldeko borrokak aspaldiko sustraiak ditu gurean. Hain zaharrak ezen Deustuan eratu zen lehenengo alderdi politiko garaikidea alderdi sozialista izan baitzen. Hala ere, ez zuen babes sozial handirik eskuratu.

Testua: Hektor Ortega

Deustuan eratutako lehenengo alderdi politikoa, gure datuak zuzenak badira, PSOE izan zen. Zehatzago izateko, alderdi horren abaroan jaio zen Agrupación Socialista de Deusto (Deustuko elkarte sozialista). 1897ko urrian sortu zen eta nahikoa bitxia da, sasoi hartan nagusi ziren indar politikoek, antza denez, Deustuan erakunde barik funtzionatzen zutelako, hala monarkiko-kontserbadoreek nola karlistek. Zer esanik ez, errepublikazaleek edo urte bi arinago Sabino Aranak sortutako EAJk ere ez zeukaten artean talde antolaturik herrian.

Hala ere, badago elkarte sozialistaren sorrera goiztiarra azaldu lezakeen argudiorik. Alde batetik, Deustuan garai hartan lantegi ugari ezartzen ari ziren eta, ondorioz, herritar asko behargin hasi zen fabrika haietan. Kanpotik ere lagun ugari heldu zen. Lantegiak hasi zirenetik langileek euren buruak eratzeko ahaleginak egin zituzten. Badakigu jakin 1871n Deustuko lehenengo fabriketako langileen artean bazeudena Lehenengo Internazionaleko kideak eta klase interesen defentsan jardun zirenak. Beraz, bazegoen langile mugimenduaren tradizioa, ahula bazen ere. Bestetik, Lege Zaharretik zetozen ogibideetan ere bazen beharginen eskubideen alde eratzeko eta jotzeko tradiziorik, elkarteen zein bestelako bitartekoen bidez. Ontzioletako arotzek greba egin zuten noiz eta 1797an, egin kontu! Ildo bi

Labe garaietako langileen greba (1892). Vicente Cutandaren margolana.

horiek elikatuko zuten, seguruenez, lehenengo elkarte sozialista hura.

Urriaren 10eko mitina

1897ko urriaren 10ean mitin sozialista egin zuten Deustuan. Ehunen bat lagun batu ziren. Baina hura ez zen ekitaldi hutsa. Eginkizun zehatza zeukan. Prentsan agertu zenez, "elkarte bat osatzeko batu ziren eta hala egin zuten". Beraz, egun horretan sortu zen Agrupación Socialista de Deusto izenpean herriko lehenengo erakunde sozialista. Bizkaiko hamaikagarrena zen, alderdia herrialdean 1886an eratu zenetik.

Hurrengo asteko *El Socialista* astekarian irakurri dugu elkarteko zuzendaritza nork osatu zuen: Marccelino Villar (presidente), Pedro Gaminde (presidenteorde), Pedro Ornes (idazkari), Alejandro Lopez (diruzain), Isidro Larrondo (kontulari) eta Jesus Ojinaga eta Manuel Gabilondo. Ikuskaritza batzordea ere eratu zuten, Juan Lopez, Jose Lopez eta Pedro Etxanorekin.

Elkartearen lehenengo helbidea Deustuko Erriberako 39. zenbakian paratu zuten. Han zegoen Marcelino Villarren taberna. Honek idazkia bidali zion Deustuko alkateari hilaren 12an elkarte berriaren sorrera modu ofizialean jakinarazteko. Baina agintariak ez zuen begi onez ikusi egoitzarako taberna aukeratu izana eta miñoiak jakinaren gainean jarri zituen, ea hura legezkoa zen eta, izatekotan, elkartekoek bete zezaten tabernei ezarritako araudia. Adibidez, gaueko hamarretan itxi behar zutela.

Azaroan Deustuko miñoien kaboak txostena eman zuen herriko alkateari arrazoia emanez, baina ez dirudi horrek ezelango oztoporik ekarri zuenik. Elkarteak bere bidea egin zuen: proposamenak aurkeztu zituen Udaletxean (1898an Villarrek eta Ornesek eskaria sinatu zuten behar-beharrezko produktuen gaineko udal zergak %25 jaisteko), PSOEko kongresuetan esku hartu zuen (Villar V. kongresuan egon zen Deustu, Erandio eta Sestaoko elkarte sozialisten izenean), eta barne antolakuntza zabaltzen. 1899an ondoko hauek osatu zuten zuzendaritza: Manuel Gabilondo (presidente), Jesus Ojinaga (presidenteorde), Pedro Ornes (idazkari), Marcelino Villar (diruzain), Miguel Escalante (kontulari), Pedro Etxano, Juan Lopez eta Jose Lopez. "Kide guzti hauek karguak bere gain hartzean agur bero bat igorri diete jendartearen askatasunaren alde borrokatzen diren guztiei", idatzi zuten El Socialistan.

Zabalkunde txikia

Agurrak agur, izen aldaketa gutxi sumatzen da 1897 eta 1899 urte bitarteko zuzendaritzak alderatuta. 1901ean, Gobernadore Zibilaren eskariz, Deustuko Udalak informazio zehatza eskatu zion elkarteari: Calixto Ojinaga zegoen presidente eta 67 kide zeuzkan.

Herri langilea izan arren, Deustua ez zen izan ideia sozialistak zabaltzeko eremu egokia. Elkarteak udal hauteskundeetara hautagaiak aurkeztu zituen (1899an, adibidez, Pedro Gaminde), baina hala bozketa horietan nola Espainiako legebiltzarretakoetan emaitza urriak eskuratu zituen. Herrian ez zuen zinegotzirik izan. Deustua Zubiria-Ibarra familiaren jauntxokeriaren mende zegoen eta haien itzala amatatzen hasi zenean EAJ agertu zen nagusi.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

GIRO EZIN HOBEA DEUSTUKO GAZTE EGUNEAN

Joan den ekainaren 4an Deustuko gazteek indarrak batu eta elkartu egin ziren "egun izugarria konpartitzera". Gazte Lokala eta inguruko kaleak jai giroz eta ilusioz bete zituzten egun osoko jarduerekin.

Testua:
Amaia Mintegi
Deustuko
Gazte Lokala
Argazkiak:
Garazi Calvo

Goizean goiz, gazte goiztiarrenak bazeuden prest Deustuko Gazte Egunari hasiera emateko. Bizikletarekin gerturatu ziren lehenengoak ibilbide zaratatsuan abiatu ziren Deustuko kaleetan barrena oraindik lotan zeuden auzokideak esnatu eta Gazte Egunera gerturatzeko dei eginez.

10:30 aldera, Inazio eta Amaia bertsolariak ahotsa argitu eta bertsotan hasi ziren, Deustuko gazteek, bertsolarien hitzei arreta eskainiz, gosaltzen zuten bitartean. Eguzkia disdiratsu irten zen larunbatean eta pilak kargatuta, urte osoko lanketaren isla gisa Gazte Egunak aurrera egin zuen musikaren laguntzaz.

Bertsoen ostean, Gazte Lokaleko kide bat Txoridendako barrara igo eta pregoia bota zuen aho batez, ozen "Deustuko gazteria indartzera goaz" oihukatu zuen, amaieran xanpain botila irekiz. Lehenengo gazte ausartak kafea alboratu eta garagardoa eskatzen zuten bitartean, triki-poteorako deia luzatu zitzaien Txoridenda betetzen zuten gazteei. 11:30ean Luzarra kaleko Baiona tabernara heldu zen musika, gazte animatuek dantzan egiten zuten bitartean.

Sukalde lan-taldea osatzen zutenek bazkarirako azken ukituak eman eta paellak prestatzen hasi ziren. Kalean bertan jarri zituzten sei suek lehenengo barazkiak frijitzen zituzten bitartean, garbantzuzko krema (hummusa) prest zegoen. Entsaladei azken ukituak eman eta zainzuriak bota zizkioten horrekin bukatzeko asmoz. Bazkaria egina zegoen.

Deustuko Gazte Egunera animatutako jendea aldiz, tabernaz taberna kantan zihoan. Baten batzuk euskal dantzei ekin zioten eta besteek lotsaturik akaso, traguei eusten zieten irribarrea galdu barik. Armonia ez zen falta, kuadrillan edota bakarka gerturatutako gazteen artean.

Egindako lehengo paellak frontoiaren goialdera heltzen ziren bitartean, goseak jotako batzuek euren lekuak hartzen hasi ziren mahai gainean zeuden sagardo botilak irekitzen zituztela. 15:30 aldera Gazte Eguneko bonoa eskuratu zuten 180 pertsonak bazeukaten janaria mahai gainean eta eragile ezberdinek jarritako pankarten koloreek inguratzen zituzten gazteen elkarrizketa eta oihuek, eguzkiak euren aurpegiak koloreztatzen zituela.

Bazkariak luzez iraun ostean, guztien artean jaso zituzten mahaiak eta bazkarian erabilitako lapiko zein tresneria garbitzeko unea izan zen gazte batzuentzako. Beste batzuk aldiz euren lekua hartuz zihoazen frontoian, pala txapelketako finalerako zain. 18:00etan lau partaideek palak hartu

eta jokatzeari ekin zioten. Giro onez betetako frontoian ikusleen buruek pilota jarraitzen zuten, eta azkenean, ordubeteko partiduaren ostean Eder eta Karlos Deustuko gazteak gailendu ziren txapelketan.

Egunarekin bukatzeko, eguzkia ezkutatzen ari zela, gazteek bokatak prestatu zituzten Txoridendan eta kontzertuen lehen notak Gazte Lokalean entzuten hasi ziren.

Arrasatetik etorritako Hans, Willii eta Txakur izan ziren lehenengoak eta euren ostean Mortimer Tanganaren txanda izan zen, goizaldeko ordu bata arte iraun zuen Jarel Babel DJekin bukatuz.

IRATI PEREZ DE NANCLARESekin

Deustu Arraun Taldeko kidea

Testua: Nerea Olaziregi
Argazkiak: Iñigo Azkona

"Lortu dugu arraunlari neskak

hemen geratzea”

Irati Perez de Nanclares Deustuko nesken traineruko arraunlaria da. Gurea da Bizkaiak duen nesken ontzi bakarra, eta Irati harro dago bere taldeak eta klubak egindako lanarekin. Konpromiso handia eskatzen dio arraunak, baina merezi duela azpimarratu du. Zorionak neskak!

▷ ▷ SAKONEAN

“Klubek ez dute gure aldeko apustua egiten”

Arraunean ere, beste hainbat kiroletan bezala, alde handia dago neska eta mutilen baldintzen artean?

Bai, orokorrean baldintzak ez dira berdinak. Gauzak ez dira egiten eta erabakitzen gugan pentsatzen, eta askotan soberan dagoena ematen digute. Telebista ikustea besterik ez dago. Gimnasioan adibidez, batera gaudenean, mutilek dute lehentasuna eta makinarik onenak beraientzako dira. Deustun hala ere, uste dut ondo gaudela.

Asko dago egiteko oraindik benetako berdintasuna lortzeko orduan?

Bai, kirolean eta jendartean orokorrean. Uste dut nesken kirola indartu beharko zela eta horren aldeko apustua egin. Deustun egin duguna, beste talde batzuetan egin zitekeen. Kaikun adibidez, Deustun beste neska dago eta ez dute inoiz traineruaren aldeko apusturik egin.

Denboraldi berrian aurkeztu diren Bizkaiko 16 ontziren artean Deustukoa da emakumez osatutako bakarra. Zergatik?

Bizkaian arraunak ez duelako indar askorik. Neska gutxi dago orokorrean, eta hemengo klubek ez dute gure aldeko apustua egiten. Gipuzkoan nesken zortzi traineru dago eta ez dut uste gu baino kirolariagoak direnik.

Hainbat saiakera egon dira aurretik.

Bai, duela bi urte traineru bat ateratzea lortu zen, baina hainbat klubetako kideak nahastuz. Klub gisa, gurea da lehenengoa.

Asko kostatu zaizue trainerua ateratzea?

Lan handia egin dugu, bai. Iaz aukerak zeudela ikusi genuen eta jende berria eta ilusio handiarekin, azkenean lortu egin dugu. Meritua gurea eta Deustuko arraun taldeko zuzendaritzarena izan da.

Zaudeten guztiak ez zarete Deustukoak ezta?

Ez, gure ontzian Deustuko 11 lagunez

gain, Portugaleteko, Iberia, Kaiku eta Arkotetik etorritako lagun bana daude.

Bizkaiko Arraun Federazioak emandako datuen arabera neska arraunlarien kopurua gora doa urtez urte.

Bai, gaur egun 200 fitxa baino gehiago dago. Oraingoa, nire hirugarren denboraldia da Deustun eta hamaika neska gara; hasi nintzenean bost besterik ez ginen.

Zer aldatu da orain neska gehiago izateko?

Ez dakit, orain dugun giroa oso ona da, eta horrek jendea erakartzen du. Lortu dugu jendea hemen geratzea. Taldean dagoen giroa oso garrantzitsua dela uste dut.

Zeintzuk dira zuen hurrengo erronkak?

Etorkizunera begirako proiektua izatea nahi dugu eta ez denboraldi honetako kontua. Pixkanaka-pixkanaka taldearen maila hobetzea eta gipuzkoar taldeak dauden mailara heltzea da gure helburua, Euskotren Ligan lehiatzea, alegia. Lan asko eginda posiblea da.

Zenbat egunetan entrenatzen duzue?

Astean sei egunez. Normalean bost egunez entrenamendu gogorra egiten dugu eta seigarrenean atseden aktiboa. Egun bakarra dugu benetako atsedena hartzeko, eta astean zehar izaten da asteburuak goiz entrenatzeko aprobetxatzen ditugulako.

Zertan datza entrenamendua?

Urtean zehar aldakorra da. Unearen arabera eta txapelketak dauden edo ez kontuan hartuta. Hiru egunez gimnasioan egoten gara pesak eta ergometroa egiten eta gainontzeko hirutan uretan.

Euria eta txingorra ari duenean ere uretan ikusi zaituztegu.

Bai, ohituta gaude, estropadek ez diote eguraldiari erreparatzen.

Zer da zuretzat gogorrena?

Gauza asko utzi behar izatea: parrandak, udan ateratzen diren plan guzti horiek… Hilabete opor baino ez dugu eta konpromiso gogorra da gurea, baina niretzat konpentsatzen du.

Zerekin gozatzen duzu gehien?

Arraunak gauza asko ematen dizkit. Regata batera zoazenean ez zoaz soilik arraun egitera; herri ezberdinak ezagutzen ditugu, jendearekin eguna pasatzen dugu, eta taldean sortzen den harremana oso berezia da. Gainera oso esker onekoa da arrauna, hobekuntzak eta aurrerapausoak ikusten dituzu. Bateletan, adibidez, bigarren geratu gara.

Nola sartu zinen arraunaren munduan?

Deustuarra naiz eta askotan ikusten nituen arraunlariak entrenatzen. Betidanik gustuko izan dut kirola, saskibaloia egiten nuen. Donostian ikastetik itzuli nintzenean beste zerbait egin behar nuela sentitu nuen eta hona etortzea erabaki nuen.

Etorkizunerako asmorik?

Arraunean jarraitzea hemen Deustun. Ez dut inora alde egiteko asmorik.

"Taldearen maila hobetzea eta gipuzkoar taldeen mailara heltzea da gure helburua"



Lan istripua Doneperiaga eta Arangoiti batzen dituen igogailuko lanetan

Ekainaren 7an izan zen istripua. 47 urteko langile bati harri bat jausi zitzaion burura Arangoiti eta Deustuko Doneperiaga batuko dituen igogailuaren eraikitze lanetan. Istripua goizeko 11:45ean gertatu zen eta zauritua Basurtuko ospitalera eraman zuten.

Igogailuaren lanetan hainbat arazo egon dira. Duela bi hilabete –apirilean– jarri behar zuten martxan eta oraindik ere geldi dago. EH Bilduk jakitera eman duenez maiatzaren amaieran instalazioko hainbat pieza aldatu eta eraikitako eskailera apurtu zuten. Izandako arazoak udal gobernuak obra publikoetan egindako jarraipen ezaren ondorio direla uste du EH Bilduk. "Udal gobernuak azaldu behar du zein izango den obraren gainkostua eta hartuko dituen neurriak".

ARTEA

Deustuko zubian esku-hartze artistikoak berriro ere

Zubia altxatzeko makinaria gordetzen den etxolan erakusgai jartzeko proiektu artistikoak proposatzeko aukera izan dute EHUko Arte Eder Fakultateko ikasleek eta doktoregaiek. EHUk aukeratutako epaimahaiak hiruzpalau proposamen aukeratu ditu eta horietako bakoitza hilebetez egongo da zubian ikusgai. Hautatuek 200na euro jaso dituzte saritzat eta beste 300na euro euren erakusketa etxolan paratzeko. Maiatzean eta ekainean Paula Rubio Infanteren *Spartakusbund* izeneko lana egon da etxolan ikusgai. Argazki-serie bat da *Spartakusbund*, Rosa Luxemburg eta Karl Liebnechten hobietan (Berlingo Friedrichsfelde hilerrian) hazten diren loreen oraingo egoera dokumentatzen duena.

POLITIKA

Itziar Moreno espetxez aldatu dute

San Inazioko presoa Fresneseko espetxetik Fleurykora eraman dute, Frantzian. Morenok –maiatzaren 2tik– ia hilabete eman du isolamendu egoeran zigortuta Fresnesen. Emakumeen moduluan bizi baldintza hobeak aldarrikatzeko preso sozialek abiatutako protesta nagusien bultzatzaile izatea egotzita zigortu zuen espetxeko zuzendaritzak. Morenoren egoera salatzeko eta bere isolamenduaren amaiera exijitzeko Fresneseko kartzelako gizonezko moduluko bost euskal presok 19 eguneko gose greba egin dute. Gerora, Moreno bera eta Ekhiñe Eizagirre presoa ere batu zitzaizkien. Espetxeko zuzendaritzak Morenori lekualdatuko zutela iragartzean utzi zuten gose greba gizonezkoek. Lekualdaketarekin gainerakoek.

Legez kanpoko materialik ez Guardia Zibilak miatutako etxean

Ekainaren 14an Blas de Otero kaleko 13. atariko etxebizitza ia bost orduz miatu zuen Guardia Zibileko esku-hartze eta ikerketa taldeak. Efe agentziak ezagutzera eman duenez, ez zuen legez kanpoko ez materialik ez objekturik aurkitu bertan. Etxeko bizilaguna, Salbeko komisaldegian deklaratu ostean, aske geratu zen. Atxilotuta eraman zutela zabaldu bazen ere, Blas de Otero kaleko 13. atariko bizilaguna ez zuten atxilotu.

Guardia Zibilak Estatuko hainbat probintzietan hasi zuen arma-trafikoaren aurkako polizia operazioak Interneten arma lehergarriak erosi eta moldatu ostean berriro ere salgai jartzen dituen sare bat bertan behera uztea zuen helburutzat. Bere baitan atxilotu zuten Alejandro Cao de Benos, Espainian Ipar Koreako enbaxadore lanetan jardun den pertsona. Guztira, operazioan hamar bat lagun atxilotu zituzten arma trafikoa egotzita.

Urtea: 2005 urtea

Txema Luzuriaga

Emakumeak eta inauteriak

Inauteri garaia ez den arren, honako argazki hau erakutsi nahi dizut Deustuko Emakumeak izenburu orokorrarekin, eta zehatzago 'Ez, ezetz da' leloarekin. Deustuko eta Santutxuko emakumeen kuadrillen erretratua duzu. Inauterietan aterakoa Deustuko kaleetan.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
BETI ZIZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
itzalsuen atzean
Ramon & Kajal 26
DEUSTU

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
prest-berbaizu@euskalnet.net

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

www.bilbohiria.com
BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
berriak * musika
elkarrizketak

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
KANPEINDUNEZA ETA INSTALAZIOA
☎ 656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

KABLA
RUTXUX
elkargunea
Bilbo
INTERNETA, MUSIKA, ESKUPILOTA ESKOLA, WI-Fia, KULTUR EKINTZAK, TKEPETX ASTIALDI TALDEA,...
ETA OSTIRALERO NANBURGARRAK, SANDWITXAK ETA PATATA FRIJITUAK
eta giro euskaldunak!
Otxoa kalea 48 - San Inazio

AUTO ESKOLA
SAN CRISTOBAL
Madariaga etorbidea, 39
Tfonoa: 94 475 16 27
48014 DEUSTUA

Barnizados La Ria
Berriztatzeak
Lakadok
Birpasak
Jon arrospide, 11 -4º deusto
94 476 15 98
www.barnizadosylacados-laria.com
Bernizaduran artea

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!
aek

M&S ASEGESA
Lege, lan, zerga eta kontabilitate
aholkularitza
Blas de Otero,61 Deustua
Tfnoa: 94 475 14 02

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

OktoberFest
Etxeko berezitasunak:
txerri-ukondoa eta saltxitxak
Urtebetetze askariak
ematen ditugu
Santxo Azpeitia, 3 - 94 447 22 83

Zer deritzozu Deustuko zubiko etxola bezalako espazioak erabiltzeari artista gazteen lana erakusteko?

Ehari Urtuella

Ezertarako erabiltzen ez diren lekuak aprobetxatzeari ondo deritzot. Dena dela, Deustuko zubiko etxolako lanak ez dira oso ondo ikusten adi-adi begiratu ezean.

Iker Barakaldo

Ideia polita da. Deustuko frontoia ere leku aproposa izan daiteke sormen-lanak erakusteko.



Tontxu Deustu

Primeran. Edozein espazio interesgarria izan daiteke, esaterako, Done Petri elizako hormak eta barrualdea. Adierazpen askatasun osoa behar da horretarako.

Maria Bilbo

Erabiltzen ez diren lekuak erabiltzea ideia ona da.

Asier Deustu-Galdakao

Gazteei babesa eta aukerak ematea ondo iruditzen zait.

Nahia Basurtu

Zorrotzaurren, adibidez, pabilioi itzelak daude eta erabil daitezkeela uste dut gazteek euren lanak erakuts ditzaten.



>> KULTURA

KOMIKIA ZEIN THRILLER PSIKOLOGIKOA

'Mobilak' izeneko komikia (Ediciones Beta III Milenio, 2016) kaleratu du Arantza Ibarrak Kaiet Bengoetxea ilustratzailearekin batera. Aldi berean, 'La ama' thrillerrari azken ikutuak ematen ari da.

Testua: Lur Mallea - **Irudia:** Ediciones Beta III Milenio

Areatzan, Bilboko Liburu Azokan aurkeztu dute Arantza Ibarrak eta Kaiet Bengoetxeak *Mobilak* komikia. Ekainaren 11n Ediciones Beta III Milenio argitaletxearen standera hurbildu zirenek bai Arantzaren bai Kaieten sinadura eskuratu zuten. "Nahikotxo" komiki sinatu zituzten, besteak beste, "ondo" saldu zelako.

Hurrengo geralekua Ondarrun izango dute. Izan ere, biak jatorriz ondarrutarrak dira. Hortaz, uztaileko azken astean Ondarruko azokan aurkeztuko dute *Mobilak*.

Kritika onak jaso ditu komikiak. "Lan ederra eta hainbestekoa egin dugula esan digute", dio Arantzak. Ez ditu alperrik 70 orrialde liburuak. "Oso entretenigarria" dela ere esan diete. Eta ez gazteek bakarrik. "Helduei ere gustatu zaie. Dibertigarria iruditu zaie".

Mobilak

Bere kuadrillan telefono mugikorra izan zuen lehena izan zen Arantza. Ikasle zela gurasoekin hitz egiteko erabiltzen zuen. "Katxarro" hura jendaurrean ateratzeak "lotsa" ematen ziola gogoan du. Eta zelan aldatu diren gauzak. Mobilekin ez ezik teknologiarekin lan egitera iritsi da Arantza. Gustuko du teknologia mundua. Baina era berean teknologia munduan "barruraino" sartuta gaudela konturatu da. Horregatik nahi izan du komikian kontsumismoari kritika ere egin. Adibidez, pertsonaia gaiztoaren bitartez. "Telefono zaharrak txikitu eta salgai jartzeko berriak egiten ditu".

Pertsonaia ugari agertzen da 70 orrialdetan zehar. Arantzaren gogokoenak saguzar bi dira. Jendea beldurtzeko ikasketak egiten dituzten saguzarrak, hain zuzen ere. Agerikoa denez, ez du fantasia ikuturik falta istorioak. Horixe da egilearen marka. "Beti" gustatu izan zaion "fantasia puntua".

Marrazki bizidunetatik komikira

Mobilak komikiaren istorioa idatzi zuenean marrazki bizidunetan pentsatzen egin zuen Arantzak. Gidoia Madrilen aurkeztu zuen, "txapelketa batean", eta 20 gidoirik onenen artean hautatu zuten. Sari gisa Cordoban aurkeztu zuen hainbat ekoizleren artean. Ekoizle batek interes handia erakutsi zuen aurrean, azkenean "merkeago" baten alde egin zuen. Orduan erabaki zuen Arantzak "hau atera behar dut", eta *story board*-a egiteari ekin zion komiki formatura egokitzeko. Arantzaren zirriborroak Kaiet Bengoetxeak baliatu ditu behin betiko ilustrazioak egiteko.

La ama

Sortzaile kementsua da Arantza Ibarra. Une honetan *La ama* filmaren ekoizpen osteko lanetan ari da, irailean Jaenen izango duten estreinaldiari begira. Arantzarenak ditu *La ama*-k gidoia eta zuzendaritza. Eta ekoizle gabeko film luzea denez, *crowdfunding* bidez finantziatuta, azaldu ez dituen beste hamaikatxo lan ere hartu ditu bere gain.

Nekazal giroan kokatutako thriller psikologikoa da *La ama.* "Ez du zerikusirik nire lehen filmarekin", dio. *Zigortzaileak* (Alokatu, 2011) gaztetxoei zuzendutako abentura eta fantasia filma da. "Hau berriz helduentzako pelikula da".

Jaeneko *cortijo* batean errodatu zuten 2014an. "Cortijoko buru den familiako andrea sadomasokista da", eta bere jira-birako mundua ageri da filmeko azpitraman. Aholkulari izan dute sadomasokismoan aritzen den pertsona bat. "Berak ekarri dizkigu benetako latigo, larruzko jantzi edota takoidun zapatak".

Trailerra Interneten ikusgai dago. Pelikula osoa irailean ikusi ahalko da Jaenen lehenik eta Esteponako jaialdian gero. Arantza zabalpenarekin eszeptikoa da.

http:// sarekada

azkuefundazioa.eus

'Soka, euskal dantzaren urratsetan' erakusketa Euskararen Etxean

Abuztuaren 31ra arte egongo da ikusgai Euskararen Etxean *Soka, euskal dantzaren urratsetan* erakusketa. Euskal Kultur Erakundeak euskal dantzei buruz antolatu duen erakusketa ibiltaria da eta bere xedea kultura alor hori publiko zabalari hobeki ezagutaraztea da. Zabalkunde tresna hori multimediak eskaintzen dituen aukeretan oinarritzen da. Horrela, tokikoa bezain unibertsala den jarduera horren aurpegi sozial, historiko eta artistikoak erakutsiko ditu euskarri berri eta dokumentu argitaragabeak agertuz.

Jakin badaki ekoizle gabe "oso gogorra" dela film baten banaketa egitea. "Ez da areto komertzialetara helduko. Beste era batera zabaldu beharko dugu, areto independente eta jaialdietan. Bai ala bai aterako dugu", dio. 2017 urte hasieran "espero" du Bilbora ekartzea.

behategia.eus

Martxan da Euskal Hedabideen Behatokia

Antena bat da Euskal Hedabideen Behatokia (Behategia). Antena bat hedabideen mundura zuzendua; eta antena bat euskal hedabideei begira dagoena, euskaraz diharduten hedabideen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa neurtzeko. Behategia, beraz, bada tresna bat, hobetzeko. Bada espazio bat, arlo akademikoaren eta administrazioen parte hartzeari begira.

NEUMÁTICOS MITXEL

JADA MARTXAN!!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]

Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com

CONFORT auto

HANKOOK masters

>> ZERAMIKA

TORRE MADARIAGATIK WASHINGTONERA

Urtero milioi bat pertsonaren bisita jasotzen duen Smithsonian Folklife Festival jaialdian (Washington, AEB), aurtengoan Deustun sortutako zeramika piezak ikusgai eta salgai izango dira Euskal Herriko beste hainbat erakusgairen artean.

Loitz zeramika: Jon Arrospide 8 atzea, Deustu
94 476 01 47 *www.loitz.es*

Loitz artisautza tailerreko Alex eta Angelak eposta bidez jaso zuten Smithsonian Folklife Festivaleko koordinatzaileetako baten mezua. Jackie Flanagan Pangelinanek Torre Madariagan kokatuta dagoen tailerra bisitatzeko interesa agertu zien. Loitz izenpean Alex eta Angelak egiten dituzten zeramikazko piezak ezagutzera bertaratu zen beren-beregi Deustura Jackie Flanagan Pangelinan. Azkue fundazioko lurdana Acasusok egin zituen bisitaldian itzultzaile lanak.

Tailerrean ikusitako materiala "asko" gustatu zitzaiola azaldu dio PREST! aldizkariari Loitz etxeko Alex Gonzalezek. Pieza "piloa" enkargatu dizkie, 400 bat guztira, ekainaren 29tik uztailaren 10era Washingtonen (AEB) Smithsonian Institutionek urtero antolatu ohi duen folklore jaialdian erakusteko. Izan ere, aurtengoan Euskal Herria da, Kaliforniarekin batera, jaialdian parte hartzera gonbidatu duten herrialdea. Musika, dantza, literatura, sukaldaritza eta, besteak beste, eskulangintzako 60 profesionalek baino gehiagok osatuko dute euskal ordezkaritza Smithsonian Folklife Festivalen. Alex Gozalez eta Angela Azkona Washingtonera joango ez diren arren, Loitz etxeko zeramika bertan izango da.

Enkargu handiak lan handia eskatzen du, eta horretaz jabetu dira Loitzeko tailerrean, normalean materiala "pixkanaka" egitera ohitura dauden Alex eta Angela. Pitxerrak, kaikuak, bolak (apaindutakoak eta zuriak), gatzontziak, edalontziak… egin eta bidali dituzte jada Washingtonera. "Ondo heldu dira", diote.

Erakusketa "oso ederra" izango dela hitz eman dio Jackie koordinatzaileak Alexi. "Argazkietan ikusi dugu zer eta zelan erakusten

duten, eta izugarria da", Alexen arabera. Izan ere, aurrekontu handia du Smithsonian Folklife Festivalek. Baita bisitari eta erosle ugari ere. Urtero milioi bat pertsonaren bisita jasotzen du, eta horietako askok erakusgaiak erosten dituzte. Loitzen izenean bidalitako 400 piezak salduko direla "ziur" dago Alex. "Den-dena salduko dute eta gehiago eskatuko dute. Washingtonen paratutako erakusketetatik bezero eta eskari asko irteten direla esan ohi da". Umoretsu dio, "ezingo dugu oporrik hartu".

Artisauak hondoa jota gorantz

Beste behargin batzuk bezalatsu, une latza pasa dute eskulangileek ere. Lanbidez artisauak direnek "norberaren ahaleginari esker lortu dute bizirautea; bestela, ezinezkoa da". Aurrera elkarlanean egin eta ekarpenak egiteko sortu zuten, besteak beste, Arbaso elkartea ere. "Sektorearen alde borrokatzeko".

Azken urteak "gorbeheratsuak" izan dira. Zeramikaren arloan, esaterako, 2004an hasi ziren "beherakada narbarmena" igartzen, krisi hitza "aipatzen ez zenean". Gabonetako kanpainetan "urtero %20 jaisten ziren salmentak". Azoketan "galerak" izaten zituztela gogoan du Alexek. "Azokako gastuak ordaintzera ere ez ginen heltzen". Bustingintzak hain behera eginik, ezinezkoa zen bustingintzarekin bakarrik aurrera egitea. Zorionez, Loitzen bustinaz gain, bidrioa eta brontzea ere lantzen dute. Deborarekin, garaikurrak eta enpresentzako opariak geroz eta gehiago eskatzen hasi zaizkie. Egun, garaikur eta oparien eskariak ohiko kopuruak gainditzera iritsi dira. Artisau batzuk jubilatu eta horien bezeroak jasotzeak zerikusia izan du berreskurapen horretan.

Hurrengo proiektua: *terra sigillata*

Erromatarrek (K.o. I eta II. mendeetan) ekoitzi zuten luxuzko zeramikari *terra sigilata* izena eman zioten. Bustinaren partikula finenak erabiliz geruza iragaitza ematen zieten ontziei. Bada, Euskararen Jatorria lantaldeak terra sigilatazko ontziak berregiteko eskatu die Alex eta Angelari Iruña-Veleian aurkitutako grafitoen irudiarekin apainduz.

Erromatarren luxu maila lortzeko ikerketa lanean ari dira buztinaren partikula txikienak erauziz. Izan ere, terra sigilata ekoizteko prozesuaren berri ematen duten idatzizko agiririk ez zuten utzi erromatarrek. Analisi kimikoen bitartez ezagutu da lur mota desberdinak erabiltzen zituztela. Hori ziurtatu du Alexek ere, "lur mota bakar batekin ez delako emaitza bera lortzen". Horregatik ari da buztin gorriarekin, buztin zuriarekin eta Zamora eta Euskal Herriko lurrekin frogak egiten. "Denbora asko" eskatzen duen lana da, batik bat partikula txikienak sedimentatzeak. Horregatik dute tailerra pote eta ontziz beteta. Horregatik ari dira, pazientzia handiz, espero baino denbora gehiago kentzen dien proiektuan lanean.

GAZTA KARAMELUA

Arangoitiko El Rincónera jo dugu oraingo honetan ere. Eskola aurrean dagoen tabernetariko bat da Ganeta kaleko 15. zenbakian dagoen hau. Ohi bezala Maria Luisak eta Deliak jator hartu gaituzte eta tabernako pintxo berriena aurkeztu digute.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 15 minutu

Prezioa: 1,80€

Berezitasuna: zapore gogorrak, kontrastez beteak.

Kontu batzuk

Ez da jan-edanerako aukerarik falta Arangoitiko El Rincón tabernan. Pintxo arruntak eta bereziak (hotzak eta beroak), pintxo morunoak (asteburuetan), etxeko pizzak (oso arrakastatsuak) eta era guztietako ogitartekoak eskaintzen dituzte. Eta ez da parrandarako aukerarik falta El Rincónen, Arangoiti auzoan bezalatsu. “Auzotarren parte-hartzea jai eta ekitaldietan azpimarratzekoa da. Horregatik dago hainbeste aukera; oso jaizaleak gara Arangoitin”, dio Maria Luisak.

EL RINCÓN tabernako Maria Luisa

BAR EL RINCÓN
Ganeta mendia 15 ARANGOITI 94 475 54 82
barelrincon@live.com
www.facebook.com/elrincon.arangoiti
Astelehenetik ostiralera: 07:30-15:30/ 17:30-23:00
Asteburuetan: 07:30-15:30/17:30-00:00

Nola egin?

Pikillo piperrak goxotzen hasten da Maria Luisa. Horretarako tiretan ebakitzen ditu pikillo piperrak su txikian astiro-astiro karamelu egin arte. Goxotzen daudela, tanta bat olio, azukre apur bat, ur pixka bat eta txorrotada bat Modena eta Oporto ozpin eransten dizkio. Ontzi batean sartzen ditu piperrak luzaro irauteko.

Pintxoa muntatzeko txigortutako ogi zati baten gainean xerra bat urdaiazpiko, Roquefort koskor bat eta piper karamelua jartzen dizkio. On egin!

OSAGAIAK

Urdaiazpiko serranoa
Roquefort gazta
Pikillo piperrak
Modena ozpina
Oporto ozpina
Ogia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

BERTA ALCALDE ARRIZABALAGA

Editorea, irakurlea eta musikazalea

UDARAKO PROPOSAMENAK

Ezetz dirudien arren, urteak bere erdia pasatxo egin eta heldu da uda. Horrekin batera, musika-munduan dirutza ederra ematen duen negozioa ere bueltan da: musika-jaialdiak edo *festiak*. Asteburu honetan izan dira, besteak beste, Gasteizko Azkena Rock Festival eta Bartzelonako Sónar.

Aurten, Sónarreko kartelari begira, konturatu naiz James Rhodes pianojole ingelesak ireki zuela jaialdiaren kartela joan den asteazkenean. Rhodes bereziki maite dudan tipoa da, zelebrea, arrarotxoa, baina hitz batez definitu beharko banu, artista dela esango nuke. Jaio eta batera artista izateko sortua dela pentsarazi didan gutxi horietakoa. Tipoak ez du musika-ikasketarik, ez du bizimodu errazik izan eta paria baten antzean bizi izan da urte askoan. Egun/hilabete/urte txarra izaten ari zaretela? Irakurri *Instrumental,* Rhodesek berak 40 urte bete gabe zituenean idatzitako oroitzapen-liburua (Euskaltzaindiak dio hori erabili behar dela *memoriak* esateko).

*Instrumental*ek bere burua gorroto duen tipo txiki eta ahularen istorioa kontatzen du. Musika klasikoa entzunez bakarrik lasaitzea lortzen zuen zoroaren istorioa, Rhodesek halaxe dioelako: musikak salbatu zuela. Ez da pasioz eta gozotasunez betetako istorioa, oso bestelakoa baino: bere buruarekiko erdeinua, nazka eta mespretxua zen Rhodesen biziaren motorea. Gomendagarria oso, udarako irakurgaia proposatu behar badizuet.

Blackie Books argitaletxe katalanak (aurten dena geratu da Katalunian, antza) erosi zituen eskubideak, eta edozein liburu-dendatan aurkituko duzue, 2016ko liburuetatik erosienetakoa izan da eta (*postureo*rako bada ere, saldu egin da!).



ASIER MEABE ASPOROSA

Elorri bertso-eskolako kidea

UDAREN HASIERA

Azken ikasturteak
zirudien guda
eskolatik atera
genuen guk gura
bakoitza bere herrira
doa gaur gustura
kurtsoa bukatu da,
ta hasi da uda!

UDAN ZER EGINGO DUDAN

Zer egingo dut udan?
ba, nik gauza asko
baina ni gogoz nago
udan bainatzeko
gogo handia daukat
herrira joateko
udan hainbeste gauza
daude egiteko!

ERRIBERAKO JAIAK 2016

EKAINAK 30 UZTAILAK 1-2-3

GORA ERRIBERAKO JAI HERRIKOIAK!

EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

LABORAL
kutxa